



LAN-ARRISKU PREBENTZIOARI

15. buruzko Mutualiaren
argazki lehiaketa



1




2

Prebentzio sailak, **LAN-ARRISKU PREBENTZIOARI BURUZKO MUTUALIAREN 15. ARGAZKI LEHIAKETA** abian jarri du.

Lehiaketak, bere balio artistikoagatik bai prebentzioaren egungo egoera islatzeagatik, gizartean segurtasunaren gaineko kontzientzia hartzeko eta sentsibilizatzeko lagungarriak gerta daitezkeen argazkien egileak saritu nahi ditu.

2017ko **argazki saridunak**



3

Lehiaketaren oinarriak

Parte hartzaileak: 18 urtetik gorako pertsonak, zaletuek zein profesionalak, hartu ahal izango dute parte lehiaketan, epaimahaikideek, beren senitartekoek eta MUTUALIAko langileek izan ezik. Lehiaketan parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.

Sariak, dirutan, honako hauek dira:

- Lehen saria: 1.200 euro*
- Bigarren saria: 900 euro*
- Hirugarren saria: 600 euro*

* *Indarrean dagoen zergei buruzko legerian aurreikusitako atxikipenak aplikatuko zaizkio sari guztien zenbatekoari. Zerga-betebeharrak betetzeko, sariaren zenbatekoaren eta dagozkion atxikipenen ziurtagiria emango da.*

Argazkien gaia Laneko Arriskuen Prebentzioa izango da. Argazkien gaiaren ezaugarriak irudikatu beharko dira eta, horretarako, arrisku egoerak edo jardunbide egokiak islatuko dira. Azken horiek balorazio positiboagoa jasoko dute. Irudietan, Estatuko mugen barneko egoera bakarrik agertuko da.

Argazkiek originalak eta parte-hartzaileak eginak izan beharko dute. Ezin izango dira aldeztu aurretik argitaratutako edota beste lehiaketaren batean saritutako argazkiak aurkeztu. Argazkiek ezingo dute hirugarrenen eskubiderik izan. Ez dira collageak, muntaketak, margotutako argazkiak edota digitalki manipulatuak onartuko, egoeraren integritatea erakuste aldera. Koloretan eta zuri-beltzean egin ahaliko dira. Egileek nahi beste argazki aurkeztu ahaliko dituzte, baina bat baino ez da sarituko.

Argazkien formatua:

- Argazkiak formatu digitalean bidaliko dira.
- Argazki-artxiboek dagokien, ondoko formatukoak bakarrik onartuko dira: .jpg eta .bmp
- Argazkiek 20 x 30 cm inguru eta gutxienez 300 ppp-ko bereizmena izan beharko dute.
- Argazkiak ezingo du 5 Mb baino pixu handiagoa izan.

Aurkeztutako argazki bakoitzeko **“Xehetasunen orria”** bete beharko da. Orrian, islatutako arrisku egoeraren edo jardunbide egokiaren deskribapena adierazi beharko da. Arrisku egoera bada, gainera, hartu beharreko prebentzio neurriak adierazi beharko dira. Gure webgunean eskuratu daitekeen **“Xehetasunen orria”** erabili beharko da.

Argazkiak helarazteko bidali iezaguzu, posta bat honako helbide elektronikora:

prebentzioa@mutualia.es

Honako hauek erantsi beharko dira:

- Argazkiaren artxiboa, egilearen izen-abizenak adierazita.
- Behar bezala betetako **“Xehetasunen orria”**, egilearen izen-abizenak adierazita.

Ez da onartuko **“hodei”** edo antzekoetatik deskargatu beharreko argazkirik, edo aurreko baldintzak betetzen ez dituenik.

Argazkiak aurkezteko epea 2018ko apirilaren 1ean amaituko da.

Epaimahaia honako 4 pertsona hauek osatuko dute:

- MUTUALIAko ordezkari batek
- MUTUALIAko Prebentzio Saileko ordezkari batek
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloan prestigio handikoak diren erakundeetako bi pertsonak (Laneko Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzak, Osalan, INSHT, etab.).

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta 2018ko apirilaren amaiera aldera ezagutaraziko da MUTUALIAren web orrian. Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria eman gabe gura daiteke. Ez da aurreko baldintzak betetzen ez dituen argazkirik onartuko. MUTUALIAk askatasun osoa izango du lehiaketan aurkeztutako argazkiak erreproduzitzeko edota hedatzeko. Sariak honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar. Oinarriotan aurrekusi gabeko edozein egoera antolatzaileek ebatziko dute. Oinarri osoak web gunean:

www.mutualia.es

Edozer zalanza edo kontsulta izanez gero, deitu hurrengo telefono zenbakietara:

944 042 105 | 943 440 526 | 945 009 077